

LAZARRAGA KULTUR ELKARTEAREN ESTATUTUAK

I. KAPITULUA – GAI OROKORRAK

1. artikulua – Izena eta eraketa

1.1.- 2014ko otsailaren 26an, AS/A/18198/2014 erregistro-zenbakiarekin inskribatutako LAZARRAGA KULTUR ELKARTEaren estatutu hauek aldatu dira, Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean eta Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera eta Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 9. eta 10.13 artikuluetan azaltzen denarekin bat.

1.2.- Elkarte arau hauen mende egongo da: aipatutako elkarteei buruzko legeak, estatutu hauek (legearen aurkakoak ez badira), elkartearen gobernu-organoei behar bezala hartutako erabakiak (legearen edota estatutuen aurkakoak ez badira) eta Eusko Jaurlaritzak onesten dituen erregelamenduzko xedapenak (azken horiek osagarriak izango dira).

2. artikulua – Lazarraga Kultur Elkartearen xedea, helburuak eta jarduteko ardatzak

2.1.- **Misioa:** Lazarraga Kultur Elkartea 2013. urtean jaio zen irabazi-asmorik gabeko elkarte kulturala da, eta bere xede nagusia kulturaren bitartez Arabako eta bereziki Gasteizko euskararen normalizazioan eragitea da. Horretarako, Gasteizko Kafe Antzokia-Oihaneder Euskararen Etxea kultur azpiegituraren proiektua lantzen, sustatzen eta kudeatzen du.

2.2.- **Asmoa-ikuspegia:** Lazarraga Kultur Elkarteak lurraldeko euskalgintzako eta kulturgintzako eragileen eta gizartearen onarpena eta erreferentzialtasuna lortu nahi ditu, kudeatzen duen azpiegitura kulturalaren bidez euskararen normalizazioan laguntzen duen eragile gisa.

2.3.- **Helburuak:** Lazarraga Kultur Elkartearen helburuak honako hauek dira:

2.3.1.- Euskara eta euskal kultura sustatzea.

2.3.2.- Euskararen erabilera bultzatzea eta aberastea, euskara gizarte osora zabaltzeko eta Gasteizko euskaldunok elkar ezagutzeko.

2.3.3.- Euskarazko kultur adierazpide orori erakusleioak eskaintzea: euskarari lehentasuna eman, euskaraz programatu eta euskaraz sortzeko gune egokiak eskaini.

2.3.4.- Euskal kulturaren ikerkuntza nahiz sorkuntza bultzatzea.

2.3.5.- Euskara hizkuntza gisa aztertzea.

Helburu hauek lortzeko, Elkarteak jarduera eta jarduteko ardatz hauek izango ditu kontuan:

- Gasteizko Kafe Antzokia-Oihaneder Euskararen etxea proiektua bultzatzea, dagokien erakundeekin bitartekotza egiten
- Gasteizko Kafe Antzokia-Oihaneder Euskararen Etxea euskal gizarte osora zabaltzea, anitza eta askotariko jendartea erakartzeko gunea bihurtzea
- Euskal Kulturarekin zerikusia duten jarduera, ekintzak eta ospakizunak antolatzea
- Sorkuntzara eta ikerketara bideratutako ekintzak antolatzea
- Gasteizen euskara oinarri duten gainontzeko espazio eta ekintzen osagarria ematea.
- Beste kulturetako adierazpide kulturalak ere aintzat hartzea

Aurreko paragrafoan azaldutako jarduerak gorabehera, elkarteak, bere xedeak betetzeko, honako hauek egin ahalko ditu:

- Helburuak betetzeko edo horretarako baliabideak biltzeko era guztietako jarduera ekonomikoak gauzatu
- Era guztietako ondasunak edozein tituluen bidez eskuratu eta eduki, eta mota guztietako ekintzak eta kontratuak egin

- Nolanahiko ekintzak burutu, betiere legeekin eta Estatutuekin bat etortzekotan
- Beste erakundeekin eta eragileekin elkarlana sustatu, aliantzak osatu

2.4.- **Baloreak:** Lazarraga Kultur Elkartearen ezaugarriak zehazten dituzte:

EUSKALTZALETASUNA eta KULTURZALETASUNA: elkartearen xede nagusia kulturaren bitartez euskararen erabilera eta ezagutza sustatzea denez, elkarteak osatzen duten bazkideek jarrera euskaltzalea eta kultur zalea izatea da helburua

ELKARLANA: Azpiegitura kulturala erakunde publiko eta pribatuen arteko elkarlanaren emaitza da. Halaber, komuneko interesak eta helburuak dituzten euskalgintzako, kulturagintzako eta beste esparruko eragileekin elkarlana bultzatuko eta sustatuko da

ERANTZUKIZUNA: Gizartearekiko erantzulea, arduratsua, gardena eta profesionala. Baliabide publikoak erabiltzen diren heinean, eta elkarteak helburu kolektibo baten ordezkari izan behar du

ERRESPETUA eta KONFIANTZA: Elkarteak osatzen duten kideen arteko errespetua eta konfiantza erakundearen oinarrietako bat da. Erakunde bazkideen iritzia entzun, errespetatu eta baloratuko dira. Adostutakoa errespetatuko da eta errespeturik gabeko edozein jokabide baztertuko da. Elkarteak osatzen duten kideen lanarekiko konfiantzak talde-lana erraztuko du

PARTE-HARTZEA: elkarteak ahalik eta egitura horizontaltasunaren alde egiten du, eta horren ondorioz, elkarteko kideen parte-hartzea sustatuko du. Elkartearen barne-egiturak, erabakiguneez eta prozedurek asmo horri erantzuten diote

BERRITZAILEA: egitasmo arrakastatsua eta iraunkorra izateko hain aldakorra den ingurune beharrei erantzun behar die. Xede horrekin erakundeak osatzen duten esparru guztietan aldaketa berritzaileak bultzatuko dira momentu oro

ETENGABEKO HOBEKUNTZA: erakunde erreferente bilakatzeko eta kalitatezko eskaintza egiteko etengabeko hobekuntza ezinbestekoa da. Prozesu honen baitan baliabideen optimizazioa, esparruen eta jardunaren ebaluazioa, eraginkortasuna eta kudeaketa eredu berritzaileak izango dira kontuan hartuko diren irizpideak

3. artikulua – Elkartearen Egoitza

3.1.- Elkarre honek Vitoria-Gasteizen izango du egoitza soziala: Done Jakue hiribidean 39, 9 ezk. Batzar Nagusiak berariaz adostuta aldatu dezake egoitza.

3.2.- Elkarreak beste lokal batzuk ere eduki ditzake, Batzar Orokorrak hala erabakitzen badu.

4. artikulua – Lurralde Eremua

4.1.- Elkarre honek nagusiki lurralde-eremu honetan gauzatuko ditu bere zereginak: Araba osoa, eta bereziki Vitoria-Gasteiz.

5. artikulua – Iraupena era Demokrazia-araua

5.1.- Elkarre iraunkorra izateko eratu da, eta VI. kapituluaren esaten den bezala ezohiko batzar orokorrean hartutako erabaki bidez baino ezingo da desegin, edo legetan aurreikusitako arrazoiren batengatik.

5.2.- Elkarrearen funtzionamendua eta barne-antolamendua demokratikoa izango da, eta aniztasuna erabat errespetatuko da. Erabat deusezak izango dira elkartzeko oinarrizko eskubidearen alderdietako edozein betetze ez duten itunak, estatutu-xedapenak eta erabakiak.

6. artikulua – Aginte eta administrazio organoak

6.1.- Elkaratearen aginte eta administrazioa kide anitzeko organo hauen esku egongo da:

- Bazkideen Batzar Orokorra izango da organo gorena
- Talde Eragilea izango da kide anitzeko gobernu-organoko iraunkorra

I. TITULUA: LAZARRAGA KULTURA ELKARTEAREN BATZAR OROKORRA

7. artikulua – Batzar Orokorra

7.1.- Batzar Orokorra bazkide guztiek osatzen dute, eta organo honen bitartez adierazten dira bazkideen nahiak.

7.2.- Batzar Orokorraren ahalmenak:

- i. Elkaratearen jarduera-programa orokorra
- ii. Urteko emaitza kontua eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua aztertzea eta onartzea
- iii. Talde eragilearen kudeaketa onartzea
- iv. Estatutuak aldatzea
- v. Elkartea desegitea
- vi. Lehendakaria, idazkaria, diruzaina eta Talde Eragileko gainontzeko kideak izendatzea eta kargutik kentzea; eta horiek guztiak ikustatu eta kontrolatzea
- vii. Beste elkarte batzuekin batera federazioak eta konfederazioak osatzea, edota horretatik ateratzea
- viii. Ondasun higiezinak erabili edo besterentzeko erabakiak hartzea
- ix. Aginte-organoko kideei ordaindu behar zaiela ezartzea. Ahalmen hau, Batzar orokorrak aginte-organori eskuordetu diezaike horretarako bereziki hartutako erabakiaren bitartez

- x. Kuota arruntak era bereziak ezartzea. Ahalmen hau, hala ere, Batzar Orokorrak Talde Eragileari eskuordetu diezaioke horretarako bereziki hartutako erabakiaren bidez
- xi. Bazkideak behin betiko kanporatzeko erabakia hartzea
- xii. Beste organo sozialen bati esleitu gabeko beste edozein eskumen

8. artikulua – Batzar Orokorra: bazkideen ordezkaritza

8.1.- Elkarteko bazkide bakoitzak izenezko boto bat izango du Batzarrean.

8.2.- Bazkideek beste edozein bazkideren esku utzi dezakete batzar orokorretara joateko ordezkaritza. Ordezkaritza hori idatziz eskuordetu beharko da, eta Batzarreko idazkariari eman bilera baino gutxienez ordu bat lehenago. Elkartearen egoitza dagoen herritik kanpo bizi diren bazkideek ordezkaritza beste norbaiten esku uzteko agiria postaz bidali dezakete.

9. artikulua – Batzar Orokorra: deialdiak eta bilkurak

9.1.- Batzar Orokorrak ohiko bilkurak eta ezohiko bilkurak egingo ditu.

9.2.- Batzar Orokorrak gutxienez urtean behin egin beharko du ohiko bilkura: lehenengo hiruhilekoan izango da eta 7. artikuluko i), ii) eta iii) idatzi-zatietan zehaztutako erabakiak hartze aldera.

9.3.- Batzar Orokorra Talde Eragileak erabakitzen duenean bilduko da ezohiko bilkuran, bere ekimenez edota bazkideen %25ek eskatu duelako. Bilkura eskatzeko arrazoiak eta helburuak azaldu beharko dira, baina, nolana ere, honako gaiak aztertzeko eta erabakitzeko bilduko da: Estatutuak aldatzeko eta Elkartea desegiteko.

9.4.- Batzar Orokorra biltzeko deialdiak idatziz egin behar dira, eta bilkuren tokia, eguna eta ordua adierazi beharko dira, bai eta gai-zerrenda ere, eztabaidatuko diren gaien aipamen zehatzarekin. Deialdia egiten denetik gutxienez, astebete pasatu

beharko da bilkura lehen deialdian egiteko. Hala badagokio, bigarren deialdiaren data eta ordua ere adieraz daitezke. Dena dela, deialdi batetik bestera gutxienez ordu erdiko tartea utzi beharko da.

10. artikulua – Batzar Orokorra: quoruma eta gehiengoak

10.1.- Batzar orokorrak, ohikoak naiz ezohikoak, lehenengo deialdian balio osoz eratuta geratuko dira botoa emateko eskubidea duten elkartekideen herena bertaratzen bada; eta bigarren deialdian, botoa emateko eskubidea duten elkartekideen kopurua edozein dela ere.

10.2.- Batzar Orokorraren erabakiak gehiengo soilez hartuko dira, hau da, bertaratuen nahiz ordezkatuak baiezko botoak ezezkoak baino gehiago direnean. Alabaina, bertaratuen edo ordezkatuak gehiengo kualifikatua beharko da (baiezko botoak baliozko botoen erdia baino gehiago izatea, alegia) erabaki hauek hartzeko:

- Elkartea desegitea
- Estatutuak aldatzea
- Ondasunak erabili edo besterentzea
- Ordezkaritza-organoko kideei ordaintzea

II. TITULUA: LAZARRAGA KULTURA ELKARTEAREN TALDE ERAGILEA

11. artikulua – Talde Eragilea

11.1.- Talde Eragilea da Batzar orokorraren xedapen eta zuzentarauei jarraikiz elkartearen interesak kudeatu eta ordezkatzeko dituen organoa. Elkartekideek baino ezingo dute osatu ordezkari organoa.

11.2.- Talde Eragilearen zereginak hurrengo hauek dira:

- i. Elkartearen eguneroko kudeaketaz arduratzea, Batzar Orokorraren jarraibideekin bat etorritik eta haren kontrolpean
- ii. Elkarteko lantaldea kudeatzea
- iii. Lantaldeak aurrera eramango dituen ekintzak jarraitzea
- iv. Administrazio eta Kudeaketa esparruko arduradunak aurkeztutako gastu eta sarreraren urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen emaitza Batzar Orokorrari aurkeztea, hark onar ditzan
- v. Batzar Orokorraren bileretako gai-zerrendak egitea, eta ohiko nahiz ezohiko batzar orokorretarako deialdia egitea erabakitzea
- vi. Bazkideek egiten dituzten proposamen eta iradokizunei erantzutea eta horien inguruan hartu beharreko neurriak hartzea
- vii. Estatutu hauetako aginduak interpretatzea eta Estatutuetako hutsuneak betetzea, betiere elkartearen inguruan indarrean dauden legeekin bat etorritik
- viii. Batzar Orokorrak berariazko erabakien bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen eskusibokoak
- ix. Elkartek sustatzen eta kudeatzen duen proiektu kulturala lantzea eta horren inguruko erabakiak hartzea
- x. Beste erakundeekin harremanak izatea eta elkarrekin ordezkatzea
- xi. Unean uneko beharren arabera esparru ezberdinetako aholkularitza lantaldeak martxan jartzea

12. artikulua – Talde Eragilea: osaketa

12.1.- Talde Eragilea gehienez 11 kidez osatuta egongo da:

- Lehendakaria
- Lehendakariordea
- Idazkaria
- Diruzaina
- Administrazio eta kudeaketa arduraduna
- Komunikazio eta marketin arduraduna

- Kultura programazioaren arduraduna
- Batzordekideak (gehienez 4)

13. artikulua – Talde Eragilea: kide izateko ezinbesteko baldintzak

13.1.- Talde Eragileko kide izateko, ezinbestean baldintza hauek bete beharko dira:

- Adin nagusikoa izatea, eskubide zibil guztien jabe izatea, eta indarrean dauden legeetan ezarritako bateraezintasun-arrazoirik ez izatea
- Estatutuetan aurreikusitako moduan izendatua izatea
- Elkarteko bazkidea izatea

14. artikulua – Talde Eragilea: bilerak

14.1.- Talde Eragilearen bilerak gutxienez hilabetean behin egingo dira, eta bi aldiz elkartzea lehenetsiko da. Elkarteko bazkide batek elkartzea eskatzen duen bakoitzean ere egin ahalko dira bilera hauek.

14.2.- Talde Eragileko kideren bat bilera horietara 4 aldiz jarraian, edo, tarteka urte batean 8 aldiz agertzen ez bada, dagokion kargua utzi egin beharko du, beti ere, hutsegite horiek ez baditu arrazoitzen.

14.3.- Elkarteko lantaldeko arduradun batek bilera-aktak egingo ditu eta idazkariaren oniritzia izan ondoren, akta horiek artxibatu eta behar izanez gero dagokion liburuan transkribatuko dira.

15. artikulua – Talde Eragilea: iraupena eta aukeraketa prozesua

15.1.- Batzar Orokorrak hautatuko ditu Talde Eragileko kideak eta kargu horiek 2 urterako izendatuko dira Batzordeak berariaz baliogabetu ezean. Kide berbera behin eta berriro hautatu ahal izango da.

15.2.- Talde Eragileko kide izateko, lehendabizi, Batzar Orokorrean elkartekideak bere burua aurkeztu beharko du. Talde Eragilea osatzeko hautagai gehiago aurkezten badira Batzar Orokorrean bozketaren bitartez aukeratuko dira eta ondoren, aukeratutako elkartekideek kargua onartu beharko dute.

16. artikulua – Talde Eragilea: kideek kargua uzteko arrazoiak

16.1.- Talde Eragileko kideek kasu hauetan utziko dituzte karguak:

- a) Agintaldia bukatzen denean.
- b) Dimititzen baldin badute
- c) Bazkide izateari uzten diotenean, edo kargua betetzeko ezintasun-arrazoiak dituztenean
- d) Estatutu hauetako 15. artikulua aplikatuz, Batzar Orokorrak kargua baliogabetzea erabakitzen duenean
- e) Lantaldeko 3 arduradunei dagokionez, lanpostua uzten dutenean
- f) Hiltzen baldin badira

* "a)" puntuan agertzen dena baldin bada kargua uzteko arrazoiak, Talde Eragileko kideek jardunean jarraituko dute lehenengo batzar orokorra egin arte. Batzar horretan aukeratuko dira kargudun berriak.

* b), c), d) eta e) puntuetan agertzen dena baldin bada arrazoiak, hutsik gelditutako kargua betetzeko bazkideen artean deia egingo da, eta hautagaia egongo balitz, Batzar Orokorrak erabakiko du izendapena onetsi ala ez. Ezetsi egiten badu, behar diren kargu izendapenak egingo ditu.

16.2.- Organo honen elkarteko karguen osaeran egiten diren aldaketen berri emango zaio Elkartearen Erregistroari.

17. artikulua – Talde Eragilea: quoruma eta gehiengoak

17.1.- Kide bakoitzak bozka bakarria izango du.

17.2.- Talde Eragilean adostasuna bilatuko da, eta hartutako erabakiak baliozkoak izateko, biltzen diren kideen gehiengoak aldeko botoa eman behar du. Bozketa baliozkoa izateko gutxienez Talde eragilea osatzen duten kideen kopuruaren erdiak egon beharko du bilkuran.

17.3.- Berdinketarik egonez gero, eta kide guztiak ez badira egon, elkartekide guztiak biltzen diren hurrengo bileran egingo da bozketa. Berriz berdinketa egongo balitz, Batzar Orokorrera eramateko aukera aztertuko litzateke.

III. TITULUA: LAZARRAGA KULTURA ELKARTEAREN BATZORDEAK

18. artikulua – Batzordeak

18.1.- Aginte-organoak ez ezik, elkarteak, elkartekideen parte-hartzea bideratzeko eta sustatzeko beste batzorde edo lan-talde batzuk izan ahal ditu. Batzorde hauek aholkularitza-organoak izango dira, egonkorak, edo beharren arabera, unean unekoak. Elkarteak duen jarduna edo lantzen dituen proiektu ezberdinetan aholkua emateko bideratuko dira.

18.2.- Talde Eragileak erabakiko du Batzorde hauen osaketa eta oinarritzko funtzionamendua. Elkartekideei parte hartzeko proposamena luzatuko die.

IV. TITULUA: LAZARRAGA KULTURA ELKARTEAREN KIDE BAKARREKO ORGANOAK

19. artikulua – Lehendakaria

19.1.- Lehendakariak beregain hartuko du elkartearen legezko ordezkariak, eta Talde Eragileak eta Batzar Orokorrak hartutako erabakiak gauzatuko ditu. Era berean, bi organo horietako lehendakaria izango da.

19.2.- Lehendakariak honako hauek denak egiteko ahalmena izango du:

- i. Talde Eragilearen eta Batzar orokorraren bilera-deiak egin, bilerak bukatutzat eman, bileretan sortzen diren eztabaidak bideratu
- ii. Elkartearen ekintzen egitasmoa Talde Eragileari proposatzea eta elkartearen zereginak bultzatu eta bideratzea
- iii. Baliotasunez erabakitako ordainketak egiteko agintzea
- iv. Sortzen diren premiazko arazoak konpontzea, eta egiten den lehenengo bilkuran Talde Eragileari horren berri ematea
- v. Batzar Orokorrak eta Talde Eragileak berariazko erabaki bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen eskusibokoak

20. artikulua – Lehendakariordea

20.1.- Lehendakariordeak lehendakariari lagunduko dio, eta lehendakariak aldi batean, bere kargua bete ezin badu, lehendakariordeak ordezkatu du. Era berean, lehendakariak berariaz eskuordetzen dizkion ahalmen guztiak izango ditu.

21. artikulua – Idazkaria

21.1.- Idazkariari dagokio, zehazki, elkartean sartzeko eskabideak jaso eta izapidetzea, fitxategia eta Bazkideen Erregistro Liburua zaintzea, eta Akta Liburuaren zaintzaren eta idazketaren ardura izatea.

21.2.- Elkarteko lantaldeko arduradun batek Idazkariaren aipatutako zereginetan ordezkatu dezake, baina beti ere, Idazkariaren gainbegiratzearekin eta onespenearekin.

21.3.- Era berean, elkarteen arloan indarrean dauden legezko xedapenak betetzeaz arduratuko da, erakundearen agiri ofizialak zainduz, elkarteko liburuaren eta artxiboen edukia egiaztatuz eta Talde Eragileko izendapenen eta egoitza sozialaren aldaketen berri emateko egin beharreko jakinarazpenak eginez agintari eskudunari.

22. artikulua – Diruzaina

22.1.- Egindako diru-sarrera eta ordainketen berri emango du diruzainak, eta diru-sarrera eta gastuen urteroko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera ere jakinaraziko du. Horiek guztiak Talde Eragileari aurkeztu behar dizkio, eta horrek Batzar Orokorrari, hark onartu ditzan.

22.2.- Elkarteko lantaldeko Administrazio eta kudeaketa arduradunak Diruzainaren zereginetan ordezkatu dezake, baina beti ere, Diruzainaren gainbegiratzearekin eta onespenarekin.

23. artikulua – Administrazio eta kudeaketa arduraduna

23.1.- Administrazio eta kudeaketa arduradunak bere karguei datzekion funtzioak izango ditu, Talde Eragileko kidea den aldetik (elkartearen zuzendaritza eta kudeaketa arrunta), baita batzordeak berak eskatzen dizkionak ere. Bere esparruan (Administrazio eta kudeaketa orokorra) duen ezagutza Talde Eragilearen mesederako jarriko du.

24. artikulua – Komunikazio eta marketin arduraduna

24.1.- Komunikazio eta marketin arduradunak bere karguei datzekion funtzioak izango ditu, Talde Eragileko kidea den aldetik (elkartearen zuzendaritza eta kudeaketa arrunta), baita batzordeak berak eskatzen dizkionak ere. Bere esparruan (Komunikazio eta marketina) duen ezagutza Talde Eragilearen mesederako jarriko du.

25. artikulua – Kultura programazioaren arduraduna

25.1.- Kultura programazioaren arduradunak bere karguei datzekion funtzioak izango ditu, Talde Eragileko kidea den aldetik (elkartearen zuzendaritza eta kudeaketa arrunta), baita batzordeak berak eskatzen dizkionak ere. Bere esparruan (Kultura programazioa) duen ezagutza Talde Eragilearen mesederako jarriko du.

26. artikulua – Batzorkideak

26.1.- Batzorkideek beren karguei datzekien funtzioak izango dituzte, Talde Eragileko kideak diren aldetik (elkartearen zuzendaritza eta kudeaketa arrunta), baita batzordeak berak eskatzen dizkienak ere.

III. KAPITULUA – BAZKIDEAK

27. artikulua – Bazkideak: onartuak izateko baldintzak

27.1.- Lazarraga Kultur Elkartea bazkideek osatzen dute.

27.2.- Elkartekide izan nahi eta baldintza hauek betetzen dituzten pertsona guztiak izan daitezke elkarteko bazkide:

- Adin nagusikoa izatea, norberaren eskubideak erabiltzeko inolako lege-baldintzaren menpe ez egotea eta ebazpen judicial irmoaren bidez eskubideen erabilera mugatuta ez edukitzea
- Euskal Herriaren Autonomia Estatutuko 7.2 artikuluan aipatzen diren euskal herritarrak (7/2007ko Elkarteen legetik hartuta)
- Adingabeen kasuan beraien gaitasun-gabezia ordezkatzen duen pertsonaren Talde Eragileak aztertu eta erabakia hartuko du.
- Pertsona juridikoa izanik, organo eskudunak baliotasunez hartutako erabakiaren kopia aurkeztu beharko dute eta, bertan elkartea eratu nahi dutela eta ordezkeri gisa nork jardungo duen adierazi beharko dute. Talde Eragileak aztertu eta erabakiko du

28. artikulua – Bazkideak: prozedura

28.1.- Interesdunak elkartean sartu nahi duela idatziz aurkeztu beharko du. Talde Eragilean horren berri emango da, eta horrek erabakiko du eskabidea egin duena

elkartean onartu ala ez. Onartzen bada, bazkide fitxa helaraziko zaio bete eta sinatu dezan.

29. artikulua – Bazkideak: kuota

29.1.- Urteko kuota 30€koa da.

29.2.- Talde Eragileak kuota handitzea beharrezkoa ikusten badu, proposamena Batzar Orokorrera eramango du eta bertan onartu edo ukatuko da.

30. artikulua – Bazkideak: eskubideak

30.1.- Elkarteko bazkide guztiek honako hauek denak egiteko eskubidea dute:

- i. Elkarteei buruzko legearen edo Estatutuen kontrako erabaki eta jardunak aurkaraztea, aurkaratutako erabakiaren edukia ezagutu duten edo ezagutzeko aukera izan duten egunetik egutegiko 40 eguneko epean
- ii. Elkaratearen gobernu- eta ordezkaritza-organoen osaerari, elkaratearen kontu-egoerari eta elkaratearen jardueri buruzko informazioa jasotzea
- iii. Elkarteko beste bazkideen nortasuna, diru-sarreraren eta gastuen egoera, eta elkartean ekintzen garapenaren berri edozein unetan izatea, datu pertsonalak babesteko arautegian aurreikusitako moduan
- iv. Batzar orokorretako deiak jasotzea, batzar orokorretara joan eta hitz egin eta botoa emateko eskubidea erabiltzea, eta eskubide hori beste bazkideren baten esku utzi ahal izatea
- v. Elkaratearen Estatutu hauen arabera, elkarteko Talde Eragilean parte hartzea eta organo horietarako hautatzaile nahiz hautagai izatea
- vi. Indarrean dauden legeetan zehaztutako bazkideen fitxategian agertzea, eta elkaratearen ikurra, baldin badu behintzat erabiltzea
- vii. Estatutuen eta, egonez gero, barne-araudiaren ale bana edukitzea, eta Talde Eragileari eskakizuna eta kexak aurkeztea

- viii. Elkaratearen batzordeetan eta talde-ekintza sozialetan parte hartzea, eta elkarreak bazkideentzako tresnak esango balitu erabiltzea
- ix. Bazkideari diziplinazko neurriak ezarri aurretik, bazkideak idatziz adierazitakoa kontuan hartzea eta neurri horiek hartzea eragin duten arrazoiei buruzko azalpenak jasotzea. Neurriak hartzeko arrazoiak bazkideei dagozkien betebeharrak ez betetzea soilik oinarritu daitezke
- x. Edozein unetan baja ematea. Hala ere, hartu bai baina bete gabe dituzten konpromisoak bete beharko dituzte

31. artikulua – Bazkideak: betebeharrak

31.1.- Bazkideen betebeharrak hauek dira:

- i. Elkaratearen asmoarekin eta helburuekin bat etortzea eta horiek betetzen laguntzea
- ii. Urteko kuota eta Estatutuen arabera bazkide bakoitzari dagozkion bestelako ekarpenak ordaintzea
- iii. Estatutuetatik eratorritako bestelako betebeharrak betetzea
- iv. Elkarteko Talde Eragileak baliotasunez hartutako erabakiei men egin eta erabaki horiek betetzea

32. artikulua – Bazkideak: uztea

32.1.- Bazkide izateari uzteko arrazoiak honakoak izango dira:

- Hiltzea (edo, pertsona juridikoen kasuan, desegitea)
- Bazkidea bere borondatez joatea
- Arrazoi hauengatik, bazkide izateari uzteko zigorra jasotzea: Estatutuotatik eratorritako betebeharrak eta Batzar Orokorrak edo Talde Eragileak baliotasunez hartutako erabakietan ezarritako betebeharrak nahita edo larriki behin eta berriz hausteagatik

33. artikulua – Bazkideak: zigor arauak

33.1.- Bazkideren batek behin eta berriz hausten baditu Estatutuak edo Batzar Orokorrak nahiz Talde Eragileak hartutako erabakiak, Talde Eragileak bazkide hori zigortu edo kanporatu ahal izango du.

33.2.- 15 egunetik hilabetera bitarte eskubideak kentzetik elkartetik betiko kanporatzea izan daiteke zigorra, ondorengo artikuluek adierazitako moduan.

33.3.- Horretarako, zigorgarriak izan daitezkeen jokabideak aztertzeke Lehendakariak idazkariari agindu diezaioke aurretiazko eginbide zehatz batzuk egin ditzala, behar den informazioa jasotzeko. Eginbide horiek ikusita, lehendakariak jarduerak artxibatzeke agintzea edo elkartetik kanporatzeko zigor-espeditenteari hasiera ematea erabaki dezake.

33.4.-Ikerketaren instrukziogilea idazkaria izango da, eta berak proposatuko dizkio Talde Eragileari hartu beharreko neurriak.

34. artikulua – Bazkideak: zigor-espeditentea

34.1.- Elkartetik kanporatzeko zigor-espeditentea hasten bada, idazkariak, gertakariak egiaztatu ondoren, idatzi bat bidaliko dio interesdunari, leporatzen zaizkion karguen berri emateko. Kargu horiei erantzuteke, interesdunak bere aldeko arrazoiak azaldu ahal izango ditu hamabost eguneko epean.

34.2.- Epe hori amaituta, edonola ere, Talde Eragilearen lehenengo bilkurako gai-zerrendan sartuko da kasua.

34.3.- Talde Eragileak zigorra ezartzeko ahalmena izango du, idazkariak ez du horretan parte-hartzerik izango (instrukziogilea delako), eta zigorra ezarri aurretik interesdunari entzunaldia eskainiko zaio. Zigortzeko erabakia arrazoitu egin beharko da beti, eta erabaki horren aurkako errekurtsua jarri ahalko zaio Batzar Orokorrari.

34.4.- Elkartetik kanporatzeko erabakia interesdunari jakinaraziko zaio eta era berean hurrengo ezohiko Batzar Orokorrean errekurtsua aurkez dezakeela azalduko zaio. Hiru hilabeteren barruan Batzar horretarako deirik egiten ez bada, errekurtsua ebazteko batzarrerako deia egin beharko da. Bitartean, Talde Eragileak inputatuari bazkide-eskubideak etetea erabaki ahal izango du, eta Talde Eragileko kide bada, kargu hori utzarazi beharko dio.

34.5.- Batzar Orokorrari kanporatzeko espedientea aurkeztuz gero, idazkariak espedientearen laburpena egingo du, Talde Eragileak interesdunak aurkeztutako idatziaren eta egintzen berri zehatza Batzar Orokorrari eman ahal izateko, azken horrek dagokion erabakia har dezan.

34.6.- Kanporatzeko erabakia arrazoitu behar da beti, eta erabaki hori interesdunari jakinarazi behar zaio. Interesdunak, eskubideaz baliatuz, auzitegietara jo ahal izango du bere ustez erabakia legearen edo Estatutuen aurkakoa bada.

34.7.- Bazkideren bati kanporaketaren berri ematerakoan – berak nahi izanda edo zigorra ezarri zaiolako – bete gabe dituen bete beharrak bete ditzala eskatuko zaio.

IV. KAPITULUA – SORTZE ONDAREA ETA AURREKONTU-ARAUAK

35. artikulua – Sortze-ondarea

35.1.- Elkarateak ez du sortze ondarerik

36. artikulua – Aurrekontu-arauak

36.1.- Elkarateak, bere jarduerak aurrera eramateko, diru-baliabide hauek aurreikusten ditu:

- Sarrera kuotak, adostutako aldizko kuotak, ezohiko kuotak eta derramak
- Elkaratearen ondasun eta eskubideetatik datozen emaitzak

- Erakunde publiko eta pribatuetatik jasotako sarrerak: kontratuak, hitzarmenak, diru-laguntzak etab..
- Talde Eragileak Estatutuen helburuak lortzeko egin beharrekotzat jotzen dituen jarduera zilegietatik datozen diru-sarrerak

36.2.- Elkarre- eta ekonomia-ekitaldia urtekoa izango da, eta urte bakoitzeko abenduaren 31n itxiko da.

36.3.- Elkarreak, jarduera ekonomikoak (zerbitzuak ematea barne) gauzatuz lortzen dituen irabaziak bere helburuak betetzeko baino ez dira erabili beharko. Inola ere ezingo dira elkartekideen artean banatu, ez eta haien ezkontideen edota haiekin antzeko afektibitate-harremanean bizi diren pertsonen artean eta haien senideen artean ere. Ezingo zaie, halaber, irabazteko asmoa duten pertsona juridiko edo fisikoei doan laga.

V. KAPITULUA – ESTATUTUAK ALDATZEA

37. artikulua – Estatutuak aldatzea

37.1.- Estatutuak aldatzea propio horretarako deitutako bazkideen ezohiko Batzar Orokorrean erabaki behar da.

38. artikulua – Estatutuak aldatzea: prozedura

38.1.- Talde Eragileak batzorde-txostengile bat izendatuko du, aldaketa-proposamena idazteko. Proposamen hori Talde Eragileak ezarritako jarraibideen arabera egingo da, eta Talde Eragileak berak jarriko du egitasmoa amaitzeko epea.

38.2.- Aldaketa-proposamena epe barruan idatzi eta gero, lehendakariak Talde Eragilearen hurrengo bilkurako gai-zerrendan sartuko du. Talde Eragileak proposamena onartuko du, edo bestela batzorde-txostengileari itzuliko dio, berriz aztertu dezan.

38.3.- Egitasmoa onartuz gero, Talde Eragileak ezohiko Batzar Orokorra deitu eta bilkura horren gai zerrendan sartzea erabakiko du.

38.4.- Batzarrerako deiarekin batera, Estatutueta aldaketen testua bidaliko da, bazkideek egoki iruditzen zaizkien zuzenketak Idazkaritzan aurkeztu ahal izateko. Zuzenketa horiek Batzar Orokorrari helaraziko zaizkio, batzarra egin baino zortzi egun lehenago jaso badira idazkaritzan.

38.5.- Zuzenketak banaka nahiz taldeka egin daitezke, idatziz, eta aukerako beste testu bat izan beharko dute. Zuzenketak bozkatu ostean, Batzar Orokorrak Estatutuak aldatzeko erabakia hartuko du, eta Elkartearen Erregistro Orokorrean inskribatzen denetik aurrera baino ez du eraginik izango hirugarrenengan.

VI. KAPITULUA – ELKARTEA DESEGITEA ETA ELKARTE-ONDAREAREN ZERTARAKOA

39. artikulua – Elkartearen desegitea

39.1.- Elkartearen arrazoi hauengandik desegingo da:

- Bazkideek hala nahi dutelako. Nahi hori horretarako bildutako ezohiko Batzar Orokorrean azaldu beharko da
- Estatutueta finkatutako epea eta baldintza bete delako
- Beste elkarteren batek xurgatu duelako edo beste elkarte batzuekin bat egin duelako
- Legez ezarritako gutxieneko bazkide-kopururik ez duelako
- Elkartearen helburuak betetzea ezinezkoa delako

40. artikulua – Elkartearen likidazioa

40.1.- Elkartearen deseginez gero, desegiteko erabakia hartu duen ezohiko Batzar Orokorrak Kitapen Batzordea izendatuko du. Batzorde hori Talde Eragileko hiru kidek osatuko dute eta dagoen diruaz arduratuko da.

40.2.- Bazkideekiko eta besteekiko elkarte-betebeharrak bete ondoren, geratzen den elkarte-ondarea, geratzen bada behintzat, irabazi-asmorik gabeko elkarte bati edo irabazi-asmorik gabeko ekimenei bati eman beharko zaio.

AMAIERAKO XEDAPENAK

LEHENA: Talde Eragileak izango du eskumena Estatutu hauetan jasotako aginduak interpretatzeko eta bertako hutsuneak betetzeko, betiere elkartearen arloan indarrean dauden legezko araudiei men eginda, eta Batzar Orokorraren lehen bileran erabakitakoaren berri emanda, onartua izan dadin.

BIGARRENA: Estatutu hauek garatzeko asmoz, Batzar Orokorrak barne-araudia onartu ahal izango du, baina horrek inolaz ere ez ditu Estatutuetako aginduak aldatuko.